EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2021 MAR. MAR. 18
SARRERA/ ENTRADA 2272 IRTEERA/ SALIDA

| | |
|---|---|
| Dokumentu mota / Tipo de documento: | LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA / PROPOSICIÓN NO DE LEY |
| Nori zuzendua / Dirigido a: | LEGEBILTZARREKO MAHAIA / MESA DEL PARLAMENTO VASCO |
| Proposatzailea / Proponente: | GURRUTXAGA, MAIALEN (EA-NV)<br>UBERA, REBEKA (EH BILDU)<br>GORROTXATEGI, MIREN (EP-IU)<br>ANDUEZA, ENEKO (ES-SV) |
| Data / Fecha: | 2021.03.12 |

Espediente zenbakia / Número de expediente:

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Europako Batzordeak "Minority SafePack" ekimenari erantzunez jarduteari uko egiteari buruz // Sobre la negativa de la Comisión Europea a actuar en respuesta a la iniciativa "Minority SafePack".

## ZIOEN AZALPENA

Europako 1.120.000 herritarrek baino gehiagok eta estatuetako eta eskualdeetako erakunde askok eta hainbat gobernuk "Minority SafePack" ekimenari babesa eman diote. Europar Batasuna Europa osoan kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren erantzule eta sustatzaile izan dadin, eta EBko estatu kideek gutxiengoen eskubideak babesten dituzten Kopenhageko irizpideak bete ditzaten bultzatzen den ekimen herritarra da.

Hala, "Minority SafePack" ekimenak lege-proiektu multzo bat aurreikusten du gutxiengo nazionalen segurtasunaren alde

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Más de 1.120.000 ciudadanos de Europa y un gran número de parlamentos estatales y regionales, así como diversos gobiernos, han expresado su apoyo a la Iniciativa "Minority SafePack". Se trata de una Iniciativa Ciudadana Europea impulsada con el objetivo de que la Unión Europea se responsabilice y sea un promotora de la diversidad cultural y lingüística en toda Europa, así como que los Estados miembros de la UE observen los criterios de Copenhague que protegen los derechos de las minorías.

Así, la Iniciativa "Minority SafePack", prevé un conjunto de proyectos de ley a favor de la seguridad de las minorías nacionales y la

eta haien eskubideak eta hizkuntza-eskubideak sustatzearen alde eta haien kulturak babestearen alde. Horretarako, ekimenak bederatzi proposamen zehatz erregistratu zituen Europako Batzordearen aurrean:

- EBak Estatuei gomendatzea hizkuntza -eta kultura- dibertsitatea babestea eta sustatzea.
- Finantziazio-programak abiatzea hizkuntza-komunitate gutxituentzat.
- Hizkuntza Dibertsitatearen Zentroa delakoa sortzea.
- EBren erregio-garapenerako funtsen helburuetan, gutxiengo nazionalen babesa eta kultura -eta hizkuntza-dibertsitatearen sustapena aintzat hartzea.
- Gutxiengoek gure gizarteei eta Europari ematen dioten balio erantsiari buruzko ikerketa egitea.
- Aberrigabeentzat berdintasunera hurbiltzea.
- Egile-eskubideei buruzko Europako lege bateratua, zerbitzu eta programez ama-hizkuntzan eskuratu ahal izateko.
- Eremu urriko eskualdeetan ikus-entzunezko edukiak eskaintzeko eta jasotzeko askatasuna.
- Gutxiengoen Kultura, baliabide eta herentzia kultural kontserbatzeko eskualdeko (Estatuko) laguntzaren salbuespena debekatzea.

promoción de sus derechos y de sus derechos lingüísticos y la protección de sus culturas. Para ello, la Iniciativa registró nueve propuestas concretas ante la Comisión Europea:

- Una recomendación de la Unión para la protección y promoción de diversidad cultural y lingüística.
- Financiar programas para las pequeñas comunidades lingüísticas.
- La creación de un Centro de Diversidad Lingüística.
- Los objetivos de los fondos de desarrollo regional de la UE para incluir la protección de las minorías nacionales y la promoción de diversidad cultural y lingüística.
- Investigación sobre el valor que las minorías añaden a nuestras sociedades y a Europa.
- Aproximarse a la igualdad para la gente apátrida.
- Una sola ley europea de derechos de autor para que se pueda disfrutar de los servicios y programas en la lengua materna.
- La libertad del servicio y recepción de contenido audiovisual en las regiones minoritarias.
- Prohibir la exención de apoyo regional (estatal) a la conservación de las culturas, medios y herencia cultural minoritarios.

Hala ere, 2021eko urtarrilaren 15ean, Europako Batzordeak ekimenari erantzuteko legegintza-politika edo -proiektu berririk ez hastea erabaki zuen, beharrezkoa ez zela iritzita. Hori, nahiz eta, 2020ko abenduaren 16an, Europako Parlamentuaren hiru laurdeneko gehiengo batek Europako Batzordeari eskatu zion "Minority SafePack"

Sin embargo, la Comisión Europea decidió el 15 de enero de 2021 no iniciar nuevas políticas o proyectos legislativos en respuesta a la iniciativa al considerarlo innecesario. Ello, incluso aunque el 16 de diciembre de 2020 una mayoría de tres cuartos del Parlamento Europeo instó a la Comisión Europea a adoptar las propuestas

ekimenaren proposamenak onartzeko, baina Europako Batzordeak oraingoz ez dio jarraipenik eman.

Horrekin, Europako Batzordeak kalte egiten dio EBko demokraziari, eta uko egiten dio bidezko erreklamazio bati bide emateari, eta zuzenean kontra egiten du Europako Parlamentuaren gehiengoaren eskaerari, 1,1 milioi herritar baino gehiagoren eta Europar Batasuneko hainbat estatu eta eskualdetako erakunde eta ordezkari hautetsien eskariari.

Horregatik guztiagatik, LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkeztu da Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eusko Legebiltzarra:

1. Ez dago ados Batzordeak "Minority SafePack" delakoaren proposamenei erantzunez jarduteari uko egitearekin, horrela, Europako Parlamentuan politika eta lege berriei buruzko eztabaida demokratikoa saihesten duelarik.

2. Europako Batzordeari eskatzen dio jarraipena egin diezaiola "Minority SafePack" ekimenari, Europako Parlamentuaren gehiengoak, milioi bat herritarrek baino gehiagok eta Europar Batasuneko hainbat estatu eta eskualdetako hainbat erakunde eta ordezkari hautatuk eskatu bezala.

3. Eskatzen die Batzordeari eta Europar Batasuneko gainerako erakundeei zabal eta berma dezatela gutxiengo nazional eta linguistikoetako pertsonen babesa,

de la iniciativa "Minority SafePack", sin que por el momento la Comisión Europea haya dado seguimiento a la misma.

Con ello, la Comisión Europea perjudica a la democracia de la UE y se niega a dar cauce a una legítima reclamación y actúa directamente en contra de la demanda de la mayoría del Parlamento Europeo, de los más de 1,1 millones de ciudadanos y de la de diversas instituciones y representantes electos en varios estados y regiones de la UE que apoyaron la iniciativa Ciudadana Europea.

Por todo ello, se presenta la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY para su debate en Pleno:

El Parlamento Vasco:

1. Muestra su disconformidad con la negativa de la Comisión a actuar en respuesta a las propuestas del "Minority SafePack", evadiendo con ello un debate democrático sobre nuevas políticas y leyes en el Parlamento Europeo.

2. Insta a la Comisión Europea a dar seguimiento a la iniciativa "Minority SafePack", tal y como han solicitado la mayoría del Parlamento Europeo, más de un millón de ciudadanos y diversas instituciones y representantes electos de varios estados y regiones de la UE que apoyaron la iniciativa Ciudadana Europea.

3. Insta a la Comisión y a las demás instituciones de la Unión Europea a ampliar y garantizar la protección de las personas pertenecientes a minorías

bai eta kultura- eta hizkuntza-dibertsitatea ere.

4. Europar Batasunari eskatzen dio erantzukizuna har dezala eta Europa osoko kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren benetako sustatzailea izan dadila.

5. Eskatzen du Europar Batasuneko estatu kideek ere bete ditzatela gutxiengoen eskubideak babesten dituzten Kopenhageko irizpideak.

nacionales y lingüísticas así como la diversidad cultural y lingüística.

4. Insta a la Unión Europea a que se responsabilice y a que sea un promotor genuino de la diversidad cultural y lingüística en toda Europa.

5. Insta a que también los Estados miembros de la Unión Europea observen los criterios de Copenhague que protegen los derechos de las minorías.

EA-NV

EH BILDU

EP-IU

ES-SV